



*ERIDENEN DU ZERZAZ KONTENTA:*  
SAILKIDEEN OMENALDIA  
HENRIKE KNÖRR IRAKASLEARI  
(1947-2008)

MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA & RICARDO GÓMEZ (ARG.)

eman ta zabal oazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

ARGITALPEN  
ZERBITZUA  
SERVICIO EDITORIAL

*ERIDENEN DU ZERZAZ KONTENTA:*  
SAILKIDEEN OMENALDIA  
HENRIKE KNÖRR IRAKASLEARI  
(1947-2008)

Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.)



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea

ARGITALPEN  
ZERBITZUA  
SERVICIO EDITORIAL

2015  
Bilbo

CIP. Biblioteca Universitaria

*Eridenen du zerzaz kontenta* : sailkideen omenaldia Henrike Knörr irakasleari (1947-2008) / Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg.) - Bilbo : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2015. – 668 p. ; 24 cm.

Textos en euskara, español e inglés.

D.L.: BI-92-2015. – ISBN: 978-84-9082-092-6

1. Knörr, Henrike (1947-2008). 2. Euskara (Lengua). 3. Literatura vasca. I. Ezeizabarrena Segurola, María José, coed. lit. II. Gómez, Ricardo, coed. lit.

809.169

891.69.09

Argitalpen hau ondoko ikerketa proiektu eta taldeen barruan sartzen da:

Esta publicación se enmarca en los siguientes proyectos y grupos de investigación:

This publication has been developed in the framework of the following research projects and groups:

- «Aproximación al estudio de la competencia léxica y gramatical de los bilingües: metodologías experimentales y no experimentales» (Espainiako MINECO, FFI2012-37884-C03-02).
- «*Monumenta Linguae Vasconum* (IV): textos arcaicos vascos y euskera antiguo» (Espainiako MINECO, FFI2012-37696).
- «Historia de la lengua vasca y lingüística histórico-comparada» (HLMV-LHC) (Eusko Jaurlaritza, GIC. IT-698-13).
- «Hizkuntzaren jabekuntza, irakaskuntza eta erabilerak. Euskara, elebitasuna eta eleaniztasuna» (HIJE) (Eusko Jaurlaritza, GIC. IT-676-13).
- «Adquisición de lenguas, literatura y traducción en la formación plurilingüe» (UPV/EHU, UFI11/06).
- «Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara» (HiTeDi) (UPV/EHU, UFI11/14).

UPV/EHUko Euskararen arloko Errektoreordetzak lagundutako argitalpena

© Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua  
Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco

© Maria-José Ezeizabarrena & Ricardo Gómez (arg. / eds.)

© Egileak / Los autores / The authors

ISBN: 978-84-9082-092-6

Lege gordailua / Depósito legal: BI-92-2015

## Aurkibidea

Aurkezpena	
MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA & RICARDO GÓMEZ . . . . .	XI
Hitzaurrea	
IÑAKI GOIRIZELAIA, UPV/EHUko errektorea . . . . .	XV
Henrike Knörr eta UPV/EHUko Letren Fakultatea	
IÑAKI BAZÁN, Letren Fakultateko dekanoa. . . . .	XVII
Henrike Knörr (1947-2008). Bibliografia	
GARIKOITZ KNÖRR (Universitat de València) . . . . .	XXI
Diskurtso-markatzaile berri batzuk: <i>beste hitz batzuetan (esanda/esateko)</i> , <i>beste hitzetan (esanda/esateko)</i>	
XABIER ALBERDI LARIZGOITIA (UPV/EHU) . . . . .	1
<i>Eguna</i> egunkariko idazleak (1937)	
XABIER ALTZIBAR ARETXABALETIA (UPV/EHU) . . . . .	27
Lazarragaren eskuizkribuko adizki batzuez (euskal aditz jokoaren kronologia erlatibo baterantz)	
BORJA ARIZTIMUÑO LÓPEZ (UPV/EHU) . . . . .	49
Euskararen azentuera: hizkera tradizionaletatik euskara estandarera	
GOTZON AURREKOETXEA, IÑAKI GAMINDE, LEIRE GANDARIAS & AITOR IGLESIAS (UPV/EHU) . . . . .	71
<i>Work in conflict</i> : (meta)literatura y escritura en novelas que abordan el conflicto vasco	
MIKEL AYERBE SUDUPE (UPV/EHU) . . . . .	97
<i>Hain zuzen (ere)</i> diskurtso-markatzailea: lokailu ala operadore?	
MIREN AZKARATE (UPV/EHU) . . . . .	113

Erreferentziakidetasun-sareen etiketaze-metodologia EPEC Corpusean tratamendu konputazionalari begira KLARA CEBERIO (UPV/EHU), ITZIAR ADURIZ (Universitat de Barcelona), ARANTZA DÍAZ DE ILARRAZA (UPV/EHU) & INES M. GARCIA-AZKOAGA (UPV/EHU) . . . . .	129
Zubereraren /y/: bere sorrera eta hedapenaren inguruan ANDER EGURTZEGI (UPV/EHU) . . . . .	149
New media – new challenges for language policy: Rethinking the role of public media in language revitalization AGURTZANE ELORDUI (UPV/EHU) . . . . .	163
EPEC-RolSem: Ingelesezko <i>PropBank-VerbNet</i> eredura etiketatutako euskarazko corpusa. Erabakiak, egokitzapenak eta bereizgarriak AINARA ESTARRONA, IZASKUN ALDEZABAL, ARANTZA DÍAZ DE ILARRAZA & MARÍA JESÚS ARANZABE URRUZOLA (UPV/EHU) .	179
<i>Kode alternantzia</i> elebidun txikien hizkuntzak bereizteko gaitasunaren adierazgarri MARIA-JOSÉ EZEIZABARRENA (UPV/EHU) . . . . .	207
Narratze-trebetasunen garapena. Ipuin bera eta ume bera hiru adin ezberdinetan INES M. GARCIA-AZKOAGA, ITZIAR IDIAZABAL & LUIS M. LARRINGAN (UPV/EHU) . . . . .	227
Birformulatzailerik zuzentzaileak testu idatzietan JULIO GARCIA GARCIA DE LOS SALMONES & MIKEL IRUSKIETA (UPV/EHU) . . . . .	245
Partizipioa erlatiboa zenekoa: partizipio kategoria XIX. mendeko zenbait euskalariren lanetan RICARDO GÓMEZ LÓPEZ (UPV/EHU) . . . . .	267
Sobre una estampilla ibérica de Ruscino (Castell Rosselló, Perpignan) JOAQUÍN GORROCHATAGUI (UPV/EHU) . . . . .	281
Galderen eta erlatibozkoen ulermena haur euskaldunengan M. JUNCAL GUTIERREZ-MANGADO (UPV/EHU) . . . . .	289
Euskarazko galdera erdibituak: analisi bitar baterantz ARITZ IRURTZUN (CNRS-IKER & HiTT) . . . . .	307
Euskarazko silaba egiturak zen.ba.tzen OROITZ JAUREGI (UPV/EHU) . . . . .	325

Aitzol Aramaioren <i>Terminal</i> laburmetraia. Literatura eta zinema JON KORTAZAR (UPV/EHU) . . . . .	337
Hiru hasperen haboro JOSEBA A. LAKARRA (UPV/EHU) . . . . .	349
Zaraitzuko oikonimia JUAN KARLOS LOPEZ-MUGARTZA IRIARTE (NUP) . . . . .	379
Ehulku eta Jagonet kontsulta-zerbitzuak aztergai JESUS MARI MAKAZAGA EIZAGIRRE (UPV/EHU) . . . . .	401
Gaztelania H <sub>1</sub> eta H <sub>2</sub> -ren garapena 5 eta 8 urte artean: ipuinetako aditz kohesioa aztergai IBON MANTEROLA GARATE (UPV/EHU) . . . . .	419
Irudikapen fonologikoa gaztelania-euskara afasia elebidunean AMAIA MUNARRIZ (UPV/EHU) . . . . .	437
<i>Gauza ziuorra</i> eta <i>gezur hutsa</i> : euskal izenondo adberbialen kolokazioak JUAN CARLOS ODRIUZOLA PEREIRA (UPV/EHU) . . . . .	457
Sites of memory in the Narrative of Bernardo Atxaga MARI JOSE OLAZIREGI (UPV/EHU) . . . . .	475
Tipologia eta hizkuntzaren erritmoa: Stampe eta Doneganen ideien inguruan MIREN LOURDES OÑEDERRA (UPV/EHU) . . . . .	491
<i>Awkward birds</i> . Cosmopolitanism and globalisation issues in mi- norised cultural communities LOURDES OTAEGI IMAZ (UPV/EHU) . . . . .	499
Oloroeko diozesako euskal liburuak eta zuberera idatzia MANUEL PADILLA MOYANO (UPV/EHU) . . . . .	519
Koherentzia diskurtsiboa euskal baladen exordioetan PATXI SALABERRI MUÑOA (UPV/EHU) . . . . .	537
Hizkuntza corpusak eta euskara PELLO SALABURU (UPV/EHU) . . . . .	559
Landucciren hiztegien ordena eta honen eragina euskarazko hiztegian BLANCA URGELL (UPV/EHU) . . . . .	577
Henrike Knörr y su relación con Turquía CARMEN URIARTE (Turkiaren ohorezko kontsula Euskal Herrian) . .	603

Zenbait ohar <i>bata bestea</i> anafora elkarkariaren inguruan ARITZ URRUTIA, BEÑAT GOITIA & XABIER ARTIAGOITIA (UPV/ EHU) .....	617
Arabako euskararen gaineko ikerketak KOLDO ZUAZO (UPV/EHU) .....	643
Tabula Gratulatoria .....	667

# Oloroeko diozesako euskal liburuak eta zuberera idatzia\*

Manuel Padilla Moyano

Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketak Saila, UPV/EHU & IKER UMR5478  
manuel.padilla@ehu.es

## Sarrera

Henrike Knörr zenaren baitatik ikasi nuen euskal testu zaharren berri, bai eta haiei lotuak diren hainbat jakingarri. Gasteizko Fakultateko geletan Henrikek bere jakitate entziklopedikotik hartutako perlak oparitzen zizkigun, ikasleen bere pasioaren partalier eginez. Haren ahotik lehenbizikoz ikasi nituen Joana erregina higanautaren grina, Maisterren izena edo Oloroeko hiriaren existentzia bera. Zorretan nago, beraz, Henrike Knörr zenarekiko; ez soilik haren lan akademiko eta haren maisutasunagatik, baina bereziki haren gizalegetasun eta izaera maitagarriagatik. Enetako Antikitateko maisu handi haietakoa zen Henrike, jakintsu eta mirengarri bezain apal eta hurbila, eta haren eskoletan aurkitu bokazioari esker presenteko lana eskaintzen diot.

Zuberoako euskararen corpus zaharrari heltzean, eta testu inprimatuei hertsatuko bagatzaizkie, markatzekoa da Oloroeko apezpikutzari lotuak diren liburuen proportzioa. Gure lanaren xedea Oloroeko diozesaren eta zubereraren arteko loturen aztertzea izanen da: elizbarruti zaharrak nolako garrantzia izan zuen euskalki idatziaren egituratzean, eta haren desegiteak ondoriorik izan zuenetz honen bilakaeran.

## 1. Zuberera idatziaren corpusaz

Chahoren gramatikatik, Bonaparteren euskalkien sailkapen klasikotik pasatuz eta Zuazoren proposamenera arte (1998), Zuberoako euskarari halako

---

\* Lan hau Eusko Jaurlaritzaren babesari esker eginga da (BFI-2010-18), eta ondoko ikerkuntza proiektuetan kokatzen da: “*Monumenta Linguae Vasconum* IV: Textos arcaicos vascos y euskera antiguo” (FFI 2012-37696), “Historia de la Lengua Vasca y Lingüística Histórico-Comparada” (IT 698-13) eta “Hizkuntzalaritza Teorikoa eta Diakronikoa: Gramatika Unibertsala, Hizkuntza Indoeuroparrak eta Euskara” (UFI 11/14). Eskerrak bihurtzen dizkiot Beñat Oyharçabal eta Blanca Urgelli, lan honi iruzkin ezin pagatuzkoak egiteagatik, bai eta Pello Agirrerri, Ekialdeko testuen ikertzean lagun bikaina izateagatik.



dialekto-tasuna ezagutu zaio, hizkuntzaz barneko bezain kanpoko arrazoien-gatik. XIX. mendetik gibelatuz gero zubereraren *literatur euskalki* izaera dudazkoa izanik ere (Urgell 2013: § 7), markatzekoa da araugintza saioak baino lehenagoko *idatzizko tradizio* nabarmena zekarrela euskalki horrek.

Erran daiteke zuberera izan dela ekialdeko mintzoen ordezkari nagusia: eremu horretako euskararen historian, haren gailentasuna begien bistakoa da lekukotasunen goiztiarrari zein jarraituari erreparatuz. Inguruko mintzoen egoerari erkatuz, euskalki horren corpusak etenik gabeko soka luze eta sendo baten antza hartuko luke. Haren iragana ongi lekukotua dugu XVI. mendetik, baldin eta Bela, Oihenart eta Zalgizeren erran zaharren edukia, zatika bederen, errefrau horiek bilduak izan baino hamarkada batzuk lehenago kokatzen bada —jarraibidea onartua da paremiologian (Lakarra 1996)—. Zubereraren lekukoek, gainera, heterogeneotasun gradu altua erakusten dute, artean erlijioea, herri eta irri antzertia, erran zaharrak eta testu administratiboak edirenik. Testu inprimatuetara mugaturik, aldiz, homogeneotasuna nabaria da: dotrinak, haurridegoen araudiak edo aszetika liburuak ditugu batez ere. Vinsonen bibliografia (1891) abiapuntu har, eta 1875. urtea helmuga definiturik,<sup>1</sup> lekukotasun inprimatuen zerrenda osa daiteke:<sup>2</sup>

<sup>1</sup> Euskararen historiaren periodizazioaz denaz bezainbatean, Lakarra (1997) eta Gorrochategui *et al.* (2013) lanek hizkuntza osoarentzat proposatu dutena da gure erreferentzia. Literatur euskalkiari doakionean, aldiz, doiketa logikoak egin behar ditugu, eta bereziki bazterreko errealitatea den zubereraren kasuan. Oraingoz ez gara honen aldi historikoen bereiz eta ezartzeko maneran, baina lan honek aztertzen duen denbora tarterako bederen pare bat gogoeta ekarriko dugu.

Lehenik, corpusak etenaldi garbi bat ematen du 1783tik —1785etik Eguiatéguy sartuko bagenu— 1812ra bitartean, dudarik gabe Iraultzaren ondorioz. Ondoko aldian jarraikortasun bat ikusten dugu 1873 arte. Frantziako III. Errepublikak (konstituzioa 1875ean onetsi zen) kanbiamendu nabarmenak eraginen zituen eskolan eta prentsan, Zuberoan ere igartzen ditugunak, adibidez, almanaken sorreran. Hortaz, 1875eko zedarria kontuan hartzeko litzateke —bidenabar, bat egiten du Lehen Euskara Modernoaren muga sinbolikoarekin (1876)—. Bigarrenik, egoki iruditu zaigu Anna Urruthyren ekoizpena (Baiona, 1873) III. Errepublikaren aitzineko azken lekuko gisa plazaratzea, estali duen ahanztura luze eta bidegabea desegiteko tenorea delakoan: ordura arteko xiberotarsa idazle bakarra dugu, eta protestante kartsua. Bonaparterentzat haren zuberera eredugarria bide zen; pentsa bedi printzeak Archuren itzulpenak gainbegiratzeko eskatu ziola (Urruthy andereaz ikus Roque 2013). Hirugarrenik, argi da XIX. mendean ageriko ziren arauemaileen eraginak (Chaho, Inchauspe, Archu edo Gèze) eta Bonaparteren itzalak, izari batean, literatur zubereraren historia moldatu zutela. Alta, eragipen horiek oraino aztertzeke egonik, zilegi begiku lehen mailako lekukotasunei mugatzea.

<sup>2</sup> Goiko oharrean errana baita, bigarren mailako lekukotasunak lan honetatik kanpo uztea deliberatu dugu. Beste *ahanztura* mota da Tartasen liburuetakoa paratestuena,

## XVI. mendea

- Leizarraga: *Çyberoaco herrian vsañçatan ez tiraden hitz bakoitz batzu hango ançora itzuliac* [in TB] (P. Hautin, Arroxela, 1571).

## XVII. mendea

- Oihenart: *Les proverbes Basques recueillis par le Sr d'Oihenart plus les poesies Basques du mesme auteur* (Paris, 1657).
- Belapeire:<sup>3</sup> *Pronus Singulis diebus Dominicis clarè & distinctè immediatè post Euangelium populo legendus* (1676).
- Belapeire: *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure Ginco Jaunaren eçagutcia, salvatu içateco* (1696).

## XVIII. mendea

- J. Maytie: *Catechima Oloroeco Diocezaren cerbutchuco ecinago illustre eta ohoragarry Messire Joseph de Revol hanco apezcupiaren manuz eguina* (J. Dupoux, Paue, 1706).
- Othoitze eta Canta Espiritualac *Çubero Herrico* (J. Dupoux, Paue, 1734).
- Maister: *Jesu-Kristen Imitacionia Çuberouaco uscarala, herri beaurtaco apheç bateç, bere Jaun apheçcupiaren baimentouareki utçulia* (Dugué & Desbaratz, Paue, 1757).
- Maister:<sup>4</sup> *Igantçtaco Pronoua, eta Hilan Pronoua* (Dugué & Desbaratz, Paue, 1757).
- Ressegue: *Sacramentu-Saintiaren Aurhidegouaco maniac eta chediac, Esquiulaco parrochia eličan, Andredonamariaren Conceptione-couan, eçaria* (I. C. Desbaratz, Paue, 1758).
- Mercy: *Andere Dona Maria, scapulariocouaren confrariaco, bulla, decreta, statutac eta maniac edo chediac* (J. P. Vignancour, Paue, 1780).
- Noelen Lilia *composaturic huscarez Jesusen incarnationiaren ouhouretan* (Toneten alharguntsa, Paue, 1821 [1782]).

---

lekukotasun luzeagorekin lan egiteko irizpidea harturik. Tartas bera zubereraren tradizioetik kanpo utzi dugu, Caminorekin bat eginez (2008, 2012). Aldiz, Oihenart sartu dugu, haren atsotitz bilduman zuberera arkaikoaren nolabaiteko agerpena atzeman daitekeelakoan. Nolanahi ere den, nabaria da Oihenart eta Tartas ez zirela soilik beren lurraldeko jendei zuzentzen.

<sup>3</sup> Lan honen egiletzaz, ikus Agirre (1998a).

<sup>4</sup> “Même orthographe et mêmes caractères que l’*Imitation* souletine de Maister” (Vinson 1891: 201). Hori ez ezik, hizkuntza mailako bategite nabarmenek ere Maisterren egiletzaren hipotesia azkartzen lukete.

- *Ene adisquidia, haur duçula helcen mementoua cein baitouha Eternitate battetara* (J. P. Vignancourt, Paue, 1783) [Vinson 122a].
- *Uscara Libria confessioniaz, comunioniaz, eta meçaco sacrificio saintiaz, bicitceco erreglamenteu bateki* (Cluzeau, Baiona, 1814 [1. edizioa XVIII. mendean<sup>5</sup>]).

#### XIX. mendea

- *Doctrina Khiristia haurren instruccionetaco, idequiric hitcez hitz Franciaco eliza ororen usageco catichimati* (Cluzeau, Baiona, 1812).
- *Uscara Libria, confesioniaz, communioniaz eta meçaco sacrificio saintiaz, bicitceco erreglamenteu bateki çougni juntaturic beita Jesus-Kristen passionia, uscaralat utçulia M. Etchegoyen Mauleco erreto-raz* (Cluzeau, Baiona, 1834).
- *Azti-begüia, Agosti Chaho Bassaburutarrak Ziberou herri maitiari Parisetic igorrikirrik beste hanitchen aitzindari arguibidian goiz izarra* (P. Dondey-Dupré, Paris, 1834).
- *Khurutchiaren bidiaren eguiteco praticac eta othoitciac, J. D. R. Ciberoutar batez uscaralat utçuliric* (Vivent, Oloroe, 1838).
- *Meditacioniac khiristitarçuneco eguia, obligacione eta berthute principalez [...] oro Laphourdico uscaratic, Ciberoucoulal cerbait khambioreki utçuliric* (Lapeyrette, Oloroe, 1844).
- Inchauspe: *Khurutchiaren bidiaren Debocionia, Bayounaco Jaun Apezcupiaren baimentiareki imprimaturic* (Foré & Lassarre, Baiona, 1847).
- J.-B. Archu: *La Fontainaren Aleghia berheziak, neurt-hitzez franzesetik uskarara itzuliak* (Pasquier, La Réole, 1848).
- *Uscal-Herrico Gaseta* (Baiona, 1848) [erdia baino gutxiago zubereraz].
- J.-B. Archu, *Uskara eta franzes gramatika, uskalherrietaco haurrentzat eguina* (Foré & Lasserre, Baiona, 1852).
- *Maiatza edo Mariaren hilabetia. Meditacioniac maiatzeco egun guciez eguitecoac, egunecoa egunian, Ama Birjinaren bicitciaren misterioetan gaiñen, Uscal Herrico apez batec uscaralat eçaria* (Lapeyrette, Oloroe, 1852).
- Inchauspe: *Jincouac guiçonareki eguin patoac, edo eguiazco religionia* (Foré & Lasserre, Baiona, 1851). Bigarren argitaraldian izenburua aldatu zen: *Uscaldunaren laguna, edo escuco libria* (Foré & Lasserre, Baiona, 1852). Bosgarren ediziotik aitzina, beste aldaketa izenburuan:

<sup>5</sup> Vinsonentzat lehen edizioa (132.a) “doit être du dernier tiers du XVIIe”, baina dudarik gabe XVIIIe irakurri behar dugu. Intxaustik (2004: 860) 1775 *post quem*-eko data markatzen du, seguruenik Jean Cluzeau inprimatzaileak urte hartan ordaindu baitzuen *capitation d'imprimeur* delakoa (Vinson 1891: xli).

*Uscaldunaren guthunac. Edicione berria, arrahounkiric eta emendaturic* (V<sup>o</sup> Lamaignère, Baiona, 1866).

- Inchauspe: *Le Saint Évangile de Jésus Christ selon Saint Matthieu* (V<sup>o</sup> Lamaignère, Baiona, 1856).
- Inchauspe/Bonaparte: *Canticum trium puerorum in septem praecipuas vasconicae linguae dialectos versum* (Londres, 1858).
- Inchauspe: *L'Apocalypse de l'apôtre Saint Jean, traduit en basque souletin* (Londres, 1858).
- Iribarne: *Ciberouco guthuna edo libria* (Vignancour, Paue, 1852). 2. edizioa: *Ciberouco guthuna Eguia eta Misterio guehienez* (Vignancour, Paue, 1856).
- Inchauspe: *Iturriagaren elhestaldiak* (Londres, 1857).
- *Heren-Ordreco escu libria igante-bestetaco officio berrieki. Jaun Apphezcupiaren baimentiarekin* (Lapeyrette, Oloroe, 1860).
- *Catichima edo Fedia laburki Paul-Thérèse-David d'Astros, Bayonaco Jaun Apphezcupiac imprima eraciric; Haren Diocessan berbera eracoutsiric içaiteco* (Lasserre, Baiona, 1860).<sup>6</sup>
- Anna Urruthy: *Ebanjelio saintia Jesus-Kristena Jondane Johaneren arabera* (Cazals, Baiona, 1873).
- Anna Urruthy: *Jondane Phetiriren epitriac* (Cazals, Baiona, 1873).

Lekukotasunen inprimatzaile eta argitaralekuei so eginez, lehen inpresioa da XIX. mendeak joera aldaketa bat dakarrela: ordura artio Paue baldin bazen zubererazko liburuen karrikaratze leku pribilegiatua, Iraultza ondoan Baiona bihurtuko da erreferentzia nagusi. Hain da horrela non, XVII eta XVIII. mendeetan zubererazko testurik bertan ez argitaraturik, 1800-1875 tartean lekukotasunen erdia Baionako moldiztegiatarik aterako baitzen.<sup>7</sup>

<sup>6</sup> Vinsonen bibliografian 1872ko edizioa “traduction souletine du Catéchisme de d'Astros” bezala ematen da, baina zubererazko bertsioa lehenagotik dator. Izan ere, badira Vinsonek ezagutu ez bide zituen beste inprimaldi batzuk. Azkue Liburutegian badira 1860 eta 1868koak diratekeen aleak, AK-42/46 eta NAS 73342 ERD marken pean. Baina, gure ustez, Astrosen dotrinaren zubererazko bertsioa are lehenago behar zen ageri: Vinsonek berak gaztigatzen duenez, 1834tik aitzina *Uscara Libriaren* goiz eta arratseko otoitzak Astrosen katiximatik hartuak izanen ziren (ikus 2. atalaren bukaera). Guztiak azterturik, bermatzen dugu 1872ko *CatS*-eko otoitzek ber testua dutela; *ergo* Astrosen dotrinak zubererazko bertsioa izan behar zuen berantenez 1834rako.

<sup>7</sup> Proportzioa anitzez altuago bihurtzen da tradizio *naturaetik* kanpo plaza daitekeen eta Bonaparteri lotua den ekoizpena kenduz gero (bestelako helburuz eta bestelako irakurleko batentzat idatzia delako).

Aldakuntza hori ez da halabeharrez gertatzen.<sup>8</sup> Iraultza osteko Frantziako Eliza Katolikoaren berregituratzeak bere herexa utziko zukeen ekoizpen editorialean.

Iraultza baino lehen Akitaniako euskal herriak hiru elizbarrutiren artean banatuak ziren. Baionakoak Lapurdi eta Nafarroa Behereko hegomendebalde hartzen zuen, Akizekoak Nafarroa Behereko ipar-ekialdea,<sup>9</sup> eta Oloroekoak Zuberoa. Oloroeko diozesan Bearnoko hegoaldeak (hots, Paueko eta Oloroeko arrondizamenduak) Zuberoarekin bat egiten bazuen, Bearnoko iparralde Leskarreko eta Tarbeko elizbarrutien artean zatitua zen. Beraz, bai euskaldunak bai bearnesak hiruna elizbarrutitan barreiatuak ziren. Antolamendu hartan, Oloroeko elizbarruti zaharra bi arrazoiengatik iruditzen zait aipagarri. Lehenik, zuberotarren batasuna errespetatua zelako; bigarrenik, zuberotarrak apezpikutzaren meneko euskaldun bakarrak zirelako. Nire ustez, egoera hark berezitasun bat markatzen zuen euskarazko (zubererazko) testuen argitaratzeko beharrunea pausatu zenean.

## 2. Zuberera idatziaren sorrera, Oloroeko diozesari lotua

Frantziako Erresuma Eliza zaharraren eta erreformatuaren arteko gerlen lekuko bilakaturik, Trentoko Kontzilioaren ondorioak laster sentituko ziren katekesian, beharbada Espainian baino indar handiagoz —eta are gehiago Bearnoko elizbarrutietan<sup>10</sup>—. Ezaguna denez, Erregimen Zaharreko Fran-

<sup>8</sup> Nola ez, inprimatzearen egoerak ere badu garrantzia. Intxaustiren arabera Baiona ez zen beti inprimaleku egokia suertatu: “Badakigu hiri honetako moldiztegi batean inprimatutako lehen liburua 1642koa dela, Vinsonek esaten digunez, eta handik aurrerakoetan ere Baionatik kanpo egin (behar) izan zirela sarritan inprimaketa-lanak geroago ere, XVII.lean noski, baina baita hainbat aldiz XVIII.lean ere” (2004: 861). Denaren den, erran behar da zubererazko eliz liburuek, hein handienez irakurleko xume bati zuzendurik, ez zutela aparteko maila tekniko edo artistikorik eskatzen. Hala iruditu zaigu corpuseko liburu gehien aztertzean, eta bereziki itzulpen edo moldaketa direnen kasuan, iturri diren frantses edo lapurterazko liburuei erkatzean.

<sup>9</sup> Zehazkiago, *hego-mendebalde* eta *ipar-ekialde* horiek lurraldea bitan zatiturik definitzen dira: lehenean Garazi, Ortaize-Baigorri eta Arberoa, eta bigarrenean Oztibarre eta Amikuze (erdalduna zen Bidaxune eta ingurukoak ere). Xehekiago nahi bada, ikus Moreau (2003 [1981]: 13).

<sup>10</sup> Bearnoko printzerri zaharra Eliza erreformatuaren gotorlekua izanik, erlijioneko lehiak grina berezi bat hartuko zuen. Horrek ondorio positiborik ere ekarri zukeen: 1786-1790 artean sinatzen zekiten gizonezkoen kopuruak, Frantziako iparraldetik kanpo, soilik Pirinio Apaletan eta Alpe Garaietan gaintzen zuen %70a (Grosperin 1984: 159). Alfabetatze ehuneko altuenetakoak Pirinio Apaletakoak izatea, dudarik gabe Bearnogatik, ez da halabeharrezkoa.

tzian eskolatzeko sistema bat abian jarri zen, erregearen eta batez ere Eliza Katolikoaren babespean. *Petites écoles* zirelakoek xede kateketikoa zuten; gehiago dena, katekesia betearazteko baitezpadako bitarteko gisa ziren antolatuak. XVII eta XVIII. mendeetan (bai eta XIX. ean ere), Iparraldeko populazioaren zati handiena elebakarra zen. Hortaz, Elizak euskararen beharra zekusan Jainkoaren hitza jende xumeengana helarazteko. *Petites écoles* haiek, beraz, euskaraz pasatzen ziren Frantziako euskal probintzietan.

Agirrek (1998b) edo Oyharçabalek (1999) ohartarazten gaituzten bezala, Belapeirek *ororen eskolen* antolabidearen berri ematen digu bere katiximan. Orduko egoeraz pleini ondoan, Zuberoan Oloroeko apezpikuaren *official* kalitatean egin ordenantzan honakoa ezartzen du: “Çuberoaco Juge espiritual beçala ordenatcen dugu Herri hontaco erretor, edo Vicari orori, Jesus-Christen doctrina uscaraz eracax eta enthelega eraci diecen bere Parpriacoer, gutiena igante oroz, Meçaco guiharec aspaldian uscaraz eguin dericiegun pronoare ondoan” (Bp I 19). Mende erdi berantago, Oloroeko elizbarrutian irakaskintza haren arautzeko liburuxkan, J.-F. Montillet apezpikuak irudi klar bat eskaintzen digu:

La Priere étant faite, le Maître d'Ecole donne un signal pour faire lever les enfans, que sans faire de bruit, étant levez font une inclination profonde au Crucifix, et se remettent en leurs places. Alors le Maître fera repeter quelque chose de l'abbregé du Catechisme aux plus petits enfans, après quoy il interrogera ses autres écoliers sur l'article du Catechisme qu'il leur aura donné à apprendre; lors que le Maître verra qu'on ne sçait pas bien l'article, il donnera le même à répéter le lendemain: cet exercice doit se faire tous les jours à l'Ecole du matin, et on ne doit y employer qu'un quart d'heure ou oune demie heure au plus, et le Samedy l'Ecole du matin doit être employée toute entiere à faire répéter à tous les écoliers, les articles du Catechisme qu'ils auront étudié pendant le cours de la Semaine. Et le soir en finissant l'Ecole, il leur aprendra à chanter quelque Cantique. (Montillet 1740: art. III)

Revol eta Montillet-arren leinuko apezpikuen gotzainaldietan (1705-1783) hezkuntza izan zen arrangura nagusia: apez formakuntzaz bezala (Oloroeko apezgaitegia) fidelenez ere okupatu ziren (katixima eta *ororen eskolak*). Euskararen tokiari dagokionean, apezpiku batzuen jatorri euskalduna azpimarratu izan da faktore faboragarri gisa (Intxausti 2004: 857), baina ez da komeni ahanztea euskaldun ez ziren beste batzuek diozesako hizkuntzen erabilera kateketikoa defendatu zutela, bereziki Revol-Montilleten familiakoek (Castagnet 1997: 86-87). Erran izan da, halaber, François de Revolet euskara eta bearnesa ikasi zituela (Laborde 1924: 21), bere ikuskatzeetan haurrei galdegin ahal izateko bederen.

**1. taula**

Oloroeko apezpikuak XVII. mendetik

<b>Apezpikua</b>	<b>Gotzainaldia</b>
Arnaud IV de Maytie	1597-1623
Arnaud V de Maytie	1623-1646
(tarte egongaitza hiru apezpikurekin)	
Arnaud-François de Maytie	1659-1681
Charles de Salettes	1681-1705
Joseph de Revol	1705-1735
Jean-François de Montillet	1735-1742
François de Revol	1742-1783
J.-B. A. Villoutreix de Faye	1783-1790
B. J.-B. Sanadon	1791-1793

Belapeirerengana itzuliz, *Catechima laburra* zuberera klasikoaren sorzte agiritzat har daitekeen arren, oihartzuna eta harrera erremarkatuz gero, hamar urte berantagoko Oloroeko dotrinak gehiago eskatzen du gure arreta. Izan ere, Belapeirerenak ez zuen luzazki indarrean iraunen: 1706an Oloroeko apezpikuak, Joseph de Revolek, berea inprimaraziko zuen, Zuberoako bikario jenerala zen Jacques de Maytie itzulirik. Belapeirerena baino laburragoa, dotrina honen indarraldia luzea izan zen —Inperioaren parentesi laburrak landa (Agirre 1998b: 350)—: mende oso batez,<sup>11</sup> eta haratago ere.<sup>12</sup>

<sup>11</sup> Egiakzi, usuen *Oloroeko katixima* gisa ezagutzen dugunak (*OEH*ren aipamen sisteman *CatOlo*) funtsez bi bertsio ditu. Lehena, Joseph de Revolek 1706an *manatia*, Vinsonek aipatzen ez duen 1723ko bigarren edizio batez (Agirre 1998b: 348). Bigarrena, testu *emendatia*, ondoko urteetan ageriko zen: 1743, 1746, 1770, 1784, 1788 (guztiak Pauen), 1788 eta 1817 (azken biak Tolosan); hots, *Essai*-ko 44b, c, d, e, f, g & h). Izenburuan François de Revol ala Villoutreix de Faye apezpikuen izena ageri, bigarren multzoko edizio guztiek ber testua zerratzen dute. Hortaz, Agirrek (2001) proposatu *CatOlo2* laburdura onesten dugu.

<sup>12</sup> “Ce catéchisme [...] était encore en usage dans le pays, pendant le vingt premières années du siècle présent” (Menjoulet 1869: 336). Ezagutzen dugun azken edizioa 1817koa baita, pentsa daiteke *usage* hori komuna zela. Haratago, XIX. mende akabantzako Zuberoan Oloroeko katixima zaharraren garra ez zen oraino iraungia:

1743an François de Revolet haren osabak ezarri testua arraberrituko zuen, denborak eragiten dituen kanbiamenduen justifikazioaren pean:

Haren obragia osso eta perfeita cen bere populiari eman cianian, eta egun onxa difficil liçate hartan cerbait emendatcia edo herçia, munduco manerac ezpalira themporareki khambiatcen: badakicie ene anaye ecinago maytiac, diala hoguey eta hamar ourthe perfekt eta complitu ciren gaicec eztiela uduri egun badiela ber goustia, ber indarra eta arranjatceco ordian eman çayen ber chahutarçun eta agradamentia. (*CatOlo2* iv)

Beraz, egungo ikuspegitik bi lan nagusik (Belapeirenenak eta Maisterrenak) eklipsatua iduri lukeen katixima xume horrek sekulako garrantzia ukan zuen, nezesarioki, zuberera idatziaren kodetze eta finkatzean. Gauzak bere testuinguru historikoan, nahi bada materialean kokatuz, zuberotarrak Oloroeko katiximarekin izan ziren eskolatuak, mende luze batez. Haren grafiekin laketu ziren, eta haren moldeetan ikasi zituzten Jainkoaren manuak, edo egun orozko otoitzak errepikatu. Ahantzi gabe beste liburutan haren hainbat pasarte osoki emanak izanen zirela. Horrela, *Uscara libriaren* 1828ko edizioan GOIÇANCO OTHOITCIA, DIOCESACO CATICHIMATIC goiburu pean Oloroeko dotrinarena datza (bertsio *emendatiarena*, 1743az geroztikakoa), Oloroeko egoitza 1801etik desegina zenean —1834tik aitzina otoitza Astrosen katiximatik hartuko da (ikus 6. oharra)—.

Itzul gaitezen zubereraren corpusaren zerrendara. 1789ko haustura go-goan, ondoko taulan zubererazko ekoizpenaren izaera aise ohart daiteke:<sup>13</sup>

---

Diala berrogei ourthe eztzen neke khausitzia gogoz katichima zakinik. Egun aldiz ehi liateke khountatzen, nahi bada eskola hedatiago den. Ezagutzen dut haregati Maule ondo ondoko guizoun zaharttobat (badutu laur eta hoguei ourthe igaranik) egundano ahantzi eztiana bere katichima, Oloroeko katichima zaharra; eta artetarik orano so zounbait eguiten dero (*Almanak berria* 1887: 24).

<sup>13</sup> Testuen aipamoldeak *Orotariko Euskal Hiztegiaren* laburduren sistemaren arabekoak dira. Ondoan zerrendatzen direnak *OEH*ren corpusetik kanpo daude: *DKhirst* = *Doctrina khirstia haurren instruccionetaco, idequiric hitzez hitz. Franciaco eliza orenen usageco catichimati* (Baiona, 1812), *Khurutch* = *Khurutchiaren bidiaren eguïteco pratica eta othoitciac* (Oloroe, 1838) eta *HOrdre* = *Heren-ordreco escu-libria igante bestetaco officio berrieki* (Oloroe, 1860). *Uscara Libria - Uscara Liburu berria* serieari doakionean, honako bereizketa eginen dugu: 1828ra arte *UskLi* (Vinson 132.a, b, c, d & f), eta 1834tik aitzina *UskLi2* (132.g-tik goiti). *OEH*-ren *UskLiB* (Vinson 132.i-tik) 1834ko edizioari jarraitzen bide zaio.



**2. taula**

Zubererazko lekukotasun inprimatuak Iraultza arte.

<b>Oloroeko elizbarrutiari lotuak</b>			<b>Hitz</b>
1676	?	<i>FPrS</i>	1.254
1686	?	katixima galdua	?
1696	Paue	Bp	23.071
1706	Paue	<i>CatOlo</i>	10.751
1734	Paue	<i>OthoitceÇub</i>	9.216
1757	Paue	Mst	48.300
ca. 1757	Paue	<i>IP</i>	1.995
1758	Paue	<i>Sacram</i>	5.202
1780	Paue	Mercy	5.360
1782	Paue	<i>NLilia</i>	2.222
1783	Paue	<i>Ene adisquidia</i>	?
post 1775	Baiona?	<i>UskLi</i>	16.281
		Orotara	123.679
<b>Bestelakoak</b>			<b>Hitz</b>
1657	Paris	<i>O Pr</i>	4.723
1657	Paris	<i>O Po</i>	4.800
		Orotara	9.523

**3. Zuberera idatziaren beharraz eta egonkortasunaz**

Oihenarten lan arras bereziaz apart, 2. taulako gainerateko liburuak Oloroeko apezpikutzari lotuak dira, manera batez edo bestez. Begien bistakoa da diozesak interes bizia erakutsi zuela zuberotarren erlijionean heztean, liburuaren bitartez. Argi da, halaber, helburu horretarako zuberotarren *mintzajetik* hurbil gerta zitekeen idatzizko hizkuntza bat baliatu zela —gogora bedi Trento ondotik populuari dotrina bere mintzoan zuzentzeko irizpidea finkatua zela—. Hizkuntza idatzi hura, funtsez, Belapeirek erabili zuena izan zen. Bere katiximaren argitalpenaren aginduan honakoa zioen Joseph de Revolék, bere prosa ederraz:

Dieu n'ayant pas voulu que nous eussions la consolation de pouvoir instruire de vive voix une partie de nos Diocesains desquels le langage Nous est barbare, et auxquels le notre l'est peut être aussi [...]. Et pour

assurer de la fidelité d'une traduction qui ne Nous exposât pas à donner à nos chers enfans le poison pour le pain et le serpent pour le poisson, Nous nous sommes assurez, pour en faire la traduction, de personnes dont la capacité et la probité Nous sont également reconnues, ayant choisi pour la langue Basque, Messire Jacques de Maytie, Chanoine de notre Eglise Cathedrale et notre Diocese qui est en Soule. (Revol 1712: 14-15)

Euskarazko liburuen paratestuetan euskaraz idazteko premia kasik *topos* bilakatu zen XVII eta XVIII. mendeetan. Euskaldun elebakarren arimen gidaritzaren euskaraz egiteko beharra zen euskarazko ekoizpen editorialaren justifikabidea. Zuberoako adibide batentzat, hona hemen Maisterren eskaintza gutunaren bi pasarte, François de Revol gotzainari:

Eta noula çoure carguian, eta escupian den diocesaren pharte batec ecin escola houn hoyetariec ajuturic ukheiten beitecian, bere sortcepeneco lengouagia baicic etçakialakoç, hartacoç hanco içalec ere, bestec hebentic idokitcen dutien abantalletariec, ukhen lecen pharte, hen uscarala utçuli içan den libugnou haur çoure handitarçunaren gomendiaren, bai etare sustenguiaeren pian eçarri içan duçu. (Mst iii-iv)

Azken finean, bada lotura estu bat Iparraldeko egoera soziolinguistikoaren eta euskarazko liburugintzaren artean. Oyharçabalek maisuki erakutsi duenez (1999, 2001), XVIII. mende inguruan euskarazko ekoizpenaren gibelkadak soziolinguistikan du esplikabidea, eta ez ekonomian: frantsesa Akitaniako euskal herrietan sartu arau, euskarazko liburuek gero eta irakurlego mugatuago zuketzen. Beraz, Materrek eta Axularrek gogoan zituzten euskal irakurle haiek, seguruenaz ere gizarteko erdi-mailakoak zirenak, toki utziko zieten Lopezek aipatu *jende praubeei*. Zubereraren tradizioa lapurterarena baino mende bat berantago hasirik, ez da beheititze hori igaritzen; erran daiteke zubererazko liburugintza kasik bere sorreratik izan zela gizartearen maila apaleko irakurleei lerratua<sup>14</sup> (Oihenart eta Zuberoako beste handiki batzuen saio bakanak salbuespen).

Egitate baita Belapeireren denboratik, zuberotarrentzat eginikako liburuak zubereraz idatzi ziren. Baina hala izan behar zen, bortxaz? Lehenagotik tradizio ongi ezarria zuen lapurterak ez ote zuen balio? Beste euskal herrietako liburuek ez zuten sarbiderik Zuberoan? Errana dugu, elizbarrutiko euskaldunak oro zuberotarrak ziren, eta ez dirudi, herri xehe harengana zu-

<sup>14</sup> XIX. mendean liburu merkeagoen argitaratzeko premia preseski aipatzeraino iritsiko da: “Çoure ganat ene bihotz behariac eraikiric nuntian aldi batez, entçun çuntudan erraiten: damu da, Ciberouan eztelacoç libru guti baicic, eta direnac khario” (*Mysterio eta eguia guehienez* (1862), eskaintza gutunaren hastapena).

zen heltzea zenaz kestione, lapurtera zenik bide egokiena. XVII edo XVIII. mendeko testuetan ez da afera aipatzen; XIX. mendean, aldiz, barne itzulpenen fenomenoak duda egiteko tarte gutxi uzten du. Urgellek gaztigatzen digunez, “Lapurterazko liburu arrakastatsu batzuek zubererazko bertsioa ere izan zuten, hala nola *Meditacione ttipiak* [...] eta Astrosen dotrina” (2013: § 3.7.5).

Zuberoa Baionako elizbarrutian sartzean (1801) pausatu zen zuberotarrendako testu berezien moldatzeko beharrunea, zeinaren gibelean, gure ustez, biga arrazoin baitzen. Bata, zuberotarrek jada beren euskalkiaz irakurtzeko usantza ukaitea; bestea, lapurterak presentatzen zuen hizkuntz arrotasuna. Bada, Lapurditik idatzitako testuek ez zuketean Zuberoan beren funtzioa ongi betetzen ahal: “Hori ikhoussiric, eta etcielacoz ounxa enthelegatcen ahal Ciberouan, ouste ukhen die libru hau eçagutcen cienec houn çatekila eta abantaillous Ciberouco uscara baicic praticatcen ez diençat lengouage hountan meditacione hoyen eçartia” (*Meditacioniac* 7).

1812ko *Doctrina khiristia haurren instruccionetaco, idequiric hitcez hitz Franciaco eliza ororen usageco catichimati* liburuaren kasua desberdina da. Lapurterazko bertsioa lehenago argitaratu arren, erakuts daiteke bi bertsioen arteko erlazioa ez dela *ama-alaba* erakoa: gehiago lirateke ahizpak, edo lehen-gusinak, biak izan baitziren frantsesetik itzuliak.<sup>15</sup> Beharbada antzekoa da *Maiatza Mariaren Hilabetia* (1852) lanaren kasua, *Andre-dena Mariaren ilhabethea* (1838) lapurterazkoaren testua ez baitator harekin bat. Zernahi gisaz, zubererazko bertsio baten premia agerian da berriz ere.

<sup>15</sup> Bere bibliografian “traduction un peu abrégée du même livre en dialecte souletin” gisa definitu bazuen ere (171.c), Vinsonnek dotrina honen egiazko iturriaren berri jakinen zuen berantago: “Je viens d'apprendre également qu'il y a eu un abrégé en français du Catéchisme de l'Empire dans le diocèse de Bayonne. [...] On voit que c'est le prototype de la version souletine” (“Le catéchisme de l'Empire”, *RLPh* 29, 65). Baina frantsesezko *Abrégé de la doctrine Chrétienne pour l'instruction des enfants, extrait littéralement du Catéchisme à l'usage de toutes les églises de l'empire français* (Baiona, Cluzeau, 1812) bertsio luzearen laburpen huts bada, zubererazko eta lapurterazko itzulpenak arras testu desberdinak dira, sintaxia, hiztegia eta hainbat adierazpide guztiz urrun gertatuz. Lapurterazko itzulpenaren egileak lexiko zainduagoa darabilen bitartean, zubererazkoarena anitzez ere maileguzalea da, euskarazko ordainen xerkatzeko ahalegin handirik erakutsi gabe. Bestalde, iduri luke zubereratzailleak bere egitekoaren ez konprenitzea beti: “Erran eçaçu Symboloua latiz [...] Erraçu Symboloua franceses” (*DKhrist* 16). Ber jarraibidea atzematen dugu otoiitz guztietan, eta arras bitxia liteke erretoreek haur xiberotarrei frantsesezko otoiitzak erranaraz liezazkieten, zubererazko eta latinozkoetz gain. Aldiz, lapurterazko bertsioan esperokoa aurkitzen dugu: “Erraçu symbola latinez. [...] Erraçu escaraz [...]” (*CatLoi* 38). Beraz, zubererazko testua maila xumeago batean koka daiteke, eta ez bide da halabeharrezkoa *Abrégé* delakoa lapurterara ez baina zubererara itzulia izan zedin, kontu eginik Loison apezpikua ohartua zela Inperioko katiximaren gehiegizko hedaduraz, “surtout pour les paroisses de la campagne” (*Abrégé* 5).

**3. taula**  
Zubererazko lekukotasun inprimatuak (1789-1875)

<b>Baionako diozesari lotuak</b>			<b>Hitz</b>
1812	Baiona	<i>DKhirist</i>	11.823
1834	Baiona	<i>UskLi2</i>	11.490
1838	Oloroe	<i>Khurutch</i>	2.158
1844	Oloroe	<i>Meditacioniac</i>	26.835
1847	Baiona	<i>Ip KurBD</i>	2.736
1851	Baiona	<i>Ip Uscaledunaren laguna</i>	≈ 18.800
1852	Oloroe	<i>MaiMarHil</i>	13.650
1852	Paue	<i>CibGut/Myst</i>	7.530
1860	Baiona	<i>CatS</i>	20.240
1860	Oloroe	<i>HOrdre</i>	12.798
		Orotara	≈ 128.067
<b>Bestelakoak</b>			<b>Hitz</b>
1834	Paris	<i>Chaho AztBeg</i>	985
1844	Baiona	<i>Chaho Gaseta</i>	?
1857	Londres	<i>Bon/Ip Dial</i>	5.203
1856	Baiona	<i>Ip Mat</i>	≈ 18.000
1858	Londres	<i>Bon/Ip CantTP</i>	413
1858	Londres	<i>Ip Apok</i>	9.533
1858	La Réole	<i>Archu Fab</i>	7.912
1873	Baiona	<i>Urruthy EvS</i>	14.567
1873	Baiona	<i>Urruthy Epitriac</i>	3.219
		Orotara	> 60.000

#### 4. Literatur lapurteraren eragina<sup>16</sup>

Zuberera idatzi “ofiziala” Oloroeko diozesaren babespean sortu eta egituratu baldin bazen, lan honetan proposatzen ari garen bezala, orduan aztertu behar

<sup>16</sup> Atal honetan zubereraren tradizio *naturalean* koka daitezkeen testuetan oinarrituko gara. XIX. mendeko balioespen eta araugintza saioei doakienean, ikusi beharko da Chaho bat —bai-

liteke elizbarrutiaren desegiteak (1801) ondoriorik izan zuenetz literatur euskalkiaren bilakaeran. Kontua da Oloroeko diozesaren desegitearen ondoren hasiko dela zenbait liburu lapurteratik itzultzen edo moldatzen (ikus § 3), eta pentsatzekoa da Zuberoako eliz gizonen Baionara edo Larresorora begira egon beharrak, hala edo nola, ondoriorik izanen duela hizkuntza idatzian.

Izan ere, argudia daiteke zubererari azken mendeetan arrotz izan zaizkion zenbait hizkuntz ezaugarrik —inoiz usantza grafiko huts— XIX. mendean nolabaiteko sarbidea kausituko zuela bizkonterri zaharreko egileen-gan.<sup>17</sup> Badira horren zantzuak, hala maila fonologikoan (*o*-ren hesterei eta afrikazio puntuari lotuak, edo *n*, *l* albokarien ondoko herskariaren ahoskabe ez atxikitzea) nola morfologikoan (*-kin* sozietiboa edo *-zki-* pluralgilea). Badi-rateke gehiago, hiztegian ere, baina lan honetan elementu batzuk baizik ez ditugu zirriborratuko.

#### 4.1. Zenbait ezaugarri fonologiko

*O*-ren ixteak zubereraren mugak gainditzen baditu ere, euskalki horretan du indarrak handiena (*FHV*, § 1.6). Agian betea zen lehenbiziko testuak agertu zireneko, nahiz eta grafikoki islatzean zalantzak azaldu. Zuberoako tradizioan testu zaharrenek *ohore/ouhoure* bezalako zalantza grafikoak lekukotzen dituzte. Hitz konkretu honi doakionean, XVIII. mendean zehar *uhure* berriaren alde ebatziko da (Agirre 2001: 672). Baina iduri luke XIX. mendeko zenbait testutan grafia *gordetzailleak* maizago ager litezen: *Maia-tza*, *Mariaren Hilabetia* lanean (1852) *ohore/ouhoure* eta haien eratorriak lehia orekatuan dira (11 vs. 13), Zuberoan *ohore* zaharra desagertua den garai batean. Beraz, nekez pentsa daiteke XIX. mende erditsuan txandakatzeko grafikoa deusen isla den; guretzat lotua dateke lapurtera idatziaren eraginari.

Bestalde, ezaguna da zubereraren ezaugarri fonologikoetarik bat dela *n*, *l* ondoko herskariaren ahoskabe mantentzea (*FHV*, § 12.6): *saintü*, *althe*, *goizanko*. *Meditacioniac* liburuan (1844) *-(ar)entako* atzizkia ohikoa izan arren, *-(ar)endako* lau aldiz agertzen da (behin ere ez zubereraren corpus zaharrean): *harendaco* (17 eta 115), *berendaco* (66), *proximouarendaco* (117); vs. *Gincouarentaco* (17), *arimentaco* (32), *ororentaco* (67 eta 167), *harentaco* (160), *salvamentiarentaco* (161), *batentaco* (161), *haborouentaco* (168), *handitarçunarentaco* (169), *baliousarentaco* (209).

---

na baita Archu, Inchauspe edo Gèze bat— noraino zerbitzatu zen lehenagoko tradizio idatziaz.

<sup>17</sup> Eragipen hori aipatua izan da. Adigarri gisa, Knörrentzat Inchausperen *Ineffabilis* buldaren zubereratzea “se trata de un texto suletino muy labortanizado” (1991: 460).

Batzuetan afrikazio puntuari dagozkion grafiek zerbait seinalatzen ahal dute. Erdialdeko mintzoetan bizkarkaria duten zenbait hitzetan, Zubereroan sabaikaria aurkitzen da maizenik, eta horrela lekukotzen da testu zaharretan. Ondoko adibideak ekialdeko tradizioetik urruntzen dira: *cerbutzari-* (*HOrdre* 181, 183 (2), 184 (8), 185 (5) eta 186) baina *cerbutchari-* (4 eta 188), eta *cerbutchatu-* beti. Tartasek eta Archuk ere *zerbitzari* ematen dute (*OEH*, s.v.). Orobat erran daiteke *esparantza* hitzaz, *esparantxa* aldaera zubereraz ongi lekukotua izanik, eta XVIII. menderako guztiz hedatua: *Meditacioniac* (4 *esparantza* vs. 8 *esparantxa*), *MaiMarHil*, *Myst*, *HOrdre* edo Urruthy (lau hauetan beti *-tza*) horren lekuko dira. Areago, *esperantza* bokalismoa ere aurkitu da (*Meditacioniac* 44 eta 142; Urruthy *Epitriac* I 1, 3).

#### 4.2. *-kin* sozietiboa

Zubereraren ezaugarria da sozietiboa *-ki* eta *-kila* atzizkien bidez adieraztea.<sup>18</sup> Halere, bada *-kin* alomorfoaren agerraldirik. Oihenart edo Tartasek —bai eta Maisterren *hekin* (IV 18, 3) guztizko salbuespenaz— abstrakzio eginez, XIX. mendean hasiko da, han eta hemen, *-kin* agertzen: *Meditacioniac* liburuan (1844), baina batez ere Archuren *Fableak* itzulpenean (1848), *MaiMarHil* (1852) edo *HOrdre* (1860) liburuetan; proportzioetarako ikus 4. taula.

*Uscara libriak* hasitako “sagako” izenburuetan sumatzen ahal dugu aldaketa: lehen edizioetik *bicitceco erreglamentu bateki* errepikatzen bada (salbu 1838koan), 1845koan *concentciaren examen batekin* ageriko da, eta 1856koan *jaun aphezakupiaren baimentoarekin*. Gogoratu behar da liburu honen lehen edizioa XVIII. mendean azken laurdenekoa dela (ikus 5. oharra), eta azkena 1856koa. Beraz, haren bizitza Oloroeko gotzaintzaren sehaskatik Baionako elizbarruti handira iragan zen.

Bestalde, *-kila* moldearen agerpena diferentea da, zeren eta ahozkoaren lekuko fidagarriagotzat har daitezkeen zenbait testuk *-n-dun* atzizkia ere ematen baitute. Horrela, ez da batere arraroa irri antzertiaren tradizioeko lanetan *-kila* & *-kilan* aldizkatzea, eta Maisterrek edo *Charlemagne*-k ere ehiki lekukotzen dute (13 eta 26 agerraldi, hurrenez hurren).

<sup>18</sup> Sozietiboaren atzizkien bilakaera batentzat ikus Aitor Iglesias (2005). Nork eta Oihenartek edo Tartasek *-kin* ematetik ezin da, inolaz ere, zubererarentzat ondoriorik idoki. Idazle hauek (bai eta XIX. mendeko zenbait egilek ere) *-kin* morfema hartzen dute, izan dadin Zubereroako mugaz haratago iritsi nahiz, izan dadin literatur lapurterarekiko mendekotasunaz.

**4. taula**  
Soziatiboaren atzizkien banaketa  
-n-dun formak erabiltzen dituzten egileengan

	-ki	-kin	-kila	-kilan
O <i>Pro</i>	12	2	3	—
O <i>Po</i>	26	7	5	—
Tt <i>Olsa</i>	10	40	17	—
Tt <i>Arima</i>	21	7	14	—
Mst	+300	1	2	13
<i>UskLi</i>	93	1	22	—
<i>Xarlem</i>	138	—	7	26
Archu	13	6	—	1
<i>MaiMarHil</i>	75	14	—	—
<i>HOrdre</i>	66	8	1	—

### 4.3. Aditz morfologiaz ohar bat edo beste

Lapurteratik egokitua bide den *MaiMarHil* liburuan (1852) Zuberoan arrotz den *-zki-* absolutiboaren pluralgilea atzeman dugu, ekialdeko morfema *-(t)z-* denean. Hau arras deigarri gertatzen da *-kizki-* segidan: *çakizkit* (19, 29), *çakiskit* (35) edo *bekizkitçu* (129) baina *çakitçat* (71, 74 (2), 98 eta 104), *çakiz-tadan* (104) edo (*hurak zuri*) *bekitçu* (124, 136) baliokideak ere. Antzeko zerbait gertatzen da 3. pertsonaren datiboaren morfemarekin: *detçacogun* (15), zubereraz *detzogün/ditzogün* bezalakoak usatzen direnean.

Beste maila batean lirateke *nicelariç* (*Meditacioniac* 167, baina gainera-koetan *niçalaric*), eta batez ere *gaitçaçu* (*UskLi* 14; agerraldi bakarra); azken honek, aldiz, aukera guztiak ditu huts tipografiko izateko, *guitçaçu*-ren orde. Aditzaren gainekoekin finitzeko, *entçutecotzat* (*HOrdre* 16) helburuzkoa dakargu, zubereraren tradizioan arraroa; dena den, testu horretan *-kotzat* segida destinatibo gisa ere emana da: *pharteric hobena galdu dut celucotçat* (*HOrdre* 25).

## 5. Ondorioa

Ekialdeko euskararen historia izari handi batean egiteke denean, lan honetan etorkizuneko ikerketarako baliatzen zaizkigun hipotesietako bat zirriborratu

dugu. Oloroen diozesa zaharrak baitezpadako garrantzia izan zuen zubere-  
ra idatziaren sorreran eta egituratzean, Iraultza arteko zubereazko testu in-  
primatu gehientsuenak, manera batez edo bestez, hari lotuak izan zirelako.  
Era berean, elizbarrutiaren desegiteak (1801) eragina izan zuteen euskalki  
idatziaren bilakaeran: XVIII. mendeko testuek jarraikortasun nabarmen bat  
erakusten badute, XIX.ekoetan (eta bereziki lapurteratik moldatuak izan  
zirenetan) literatur lapurteraren eraginaren zantzuak aurkitzen ahal dira.  
Bistan da, Oloroen apezpikutzaren babesa literatur zuberearen historia  
moldatu zuten faktoreetako bat baizik ez dugu. Zentzu horretan, XIX. men-  
deko arauemaileen eragipena aztertzeke gelditzen da.

### Bibliografia

- AGIRRE, PELLO, 1998a, “Pronus Singulis diebus Dominicis clarè & distinctè im-  
mediatè post Euangelium populo legendus”. *ASJU* 32:1, 1-46.
- , 1998b, “Belapeirez”. *ASJU* 32:2, 313-364.
- , 2001, “*Catechima laburra*, zuberearen ezaugarri fonologikoen lekukoa”.  
*ASJU* 35:2, 653-787.
- CAMINO, IÑAKI, 2008, “Nafarroa Behereko euskara zaharra”. *ASJU* 42:1, 101-170.
- , 2012, “Ekialdeko euskararen iraganaz”. In I. EPELDE (arg.), *Euskalkien  
jatorria eta bilakaera*. (ASJUren Gehigarriak, 69). Bilbo: UPV/EHU, 87-153.
- CASTAGNET, VÉRONIQUE, 1997, “Une dynastie d'évêques éducateurs au XVIII<sup>e</sup>  
siècle: Les Revol et Montillet”. *Revue de Pau et du Béarn* 24, 69-98.
- GORROCHATAGUI, JOAQUÍN; IGARTUA, IVÁN & LAKARRA, JOSEBA A. (arg.), 2013  
(moldiztegi), *Euskararen Historia*. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- GROSPERRIN, BERNARD, 1984, *Les petites écoles sous l'Ancien Régime*. Rennes:  
Ouest-France.
- IGLESIAS, AITOR, 2005, “Soziatiboa Bourciez-en testuetan”. *Lapurdum* 10, 65-94.
- INTXAUSTI, JOSEBA, 2004, “Eliza Katoliko *Erromatarra* eta euskara. Haren hi-  
zkuntz hautapenei buruz zenbait ohar”. *Euskera* 49:2, 807-73.
- KNÖRR, ENDRIKE [azkanean Henrike], 1991, “La traducción suletina de la bula *Ine-  
ffabilis* por Inchauspe”. In J. A. LAKARRA (arg.), *Memoriae L. Mitxelena Ma-  
gistri Sacrum*. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia, 459-483.
- LABORDE, JEAN-BAPTISTE, 1924, “À propos du Catéchisme à l'usage du Diocèse  
d'Oléron”. *Revue historique et archéologique du Béarn et du Pays Basque* 7,  
128-39.
- LAKARRA, JOSEBA A., 1996, *Refranes y Sentencias: Ikerketak eta Edizioa*. Bilbo:  
Euskaltzaindia.
- , 1997, “Euskararen historia eta filologia: arazo zahar, bide berri”. *ASJU*  
31:2, 447-535.
- MENJOLET, JEAN-MAXIMIEN, 1869, *Chronique du diocèse et du pays d'Oloron  
(Béarn méridional et Soule)*. Tome second. Oloroen: M. Marque.



- MONTILLET, JEAN-FRANÇOIS, 1740, *Reglement pour les petites ecoles du diocese d'Oleron imprimé par l'ordre de Monseigneur l'Illustrissime & Reverendissime Messire Jean-François de Montillet Evêque d'Oleron*. Paue: Dupoux.
- MOREAU, ROLAND, 2003 [1981], *L'âme basque. Esquisse historique*. Angelu: Atlantica.
- OYHARÇABAL, BEÑAT, 1999, "Euskarazko irakaskintzaren historia: orenen eskolen ildotik, frantses Iraultzaren garaiko eskola liburuxka bat". *Lapurdum* 4, 81-105.
- , 2001, "Zenbait gogoeta euskarak letra hizkuntza gisa izan duen bilakaeraz (XVII-XVIII. mendeak)". *Litterae Vasconicae* 8, 9-46.
- REVOL, JOSEPH, 1712, *Recueil des anciennes et nouvelles ordonnances du Diocese d'Oleron imprimé par orde de Joseph de Revol*. Paue: Dupoux.
- ROQUE, IÑIGO, 2003, "Ana Urruti". *31 eskutik* [online]. <<http://31eskutik.com/2013/03/08/ana-urruti/>> [Kontsulta: 2013-05-31].
- URGELL, BLANCA, 2013 (moldiztegia), "Lehen euskara modernoa (1745-1875)". In GORROCHATEGUI *et al.* (arg.), 2013.
- VINSON, JULIEN, 1891, *Essai d'une Bibliographie de la langue Basque*. Paris: Maisonneuve [Berrarg. 1984. Donostia: Gipuzkoako Foru Aldundia].
- ZUAZO, KOLDO, 1998, "Euskalkiak, gaur". *FLV* 78, 191-234.